

## AURKIBIDEA

### 1. URTEKO ELKARBIZITZA PLANA (UEP)

- 1.1. MARKO TEORIKOA
- 1.2. MARKO LEGALA

### 1. ELKARBIZITZA-BEHATOKIA (EB)

- 2.1. ZER DA?
- 2.2. FUNTZIOA
- 2.3. KIDEAK
- 2.4. FUNTZIONAMENDUA

### 2. URTEKO ELKARBIZITZA PLANA (UEP) OSATZEA

- 2.1. SARRERA
- 2.2. GIDOIA
- 2.3. UEP DIFUSIOA.
- 2.4. IDAZTEKO JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK.

# 1. URTEKO ELKARBIZITZA PLANA (UEP)

## 1.1. MARKO TEORIKOA

**Beste pertsona batekin  
edozein tema biziki konpartitzeak,  
pozbideak konpartitzeak,  
poz fisikoak, emozionalak, psikologikoak  
edo intelektualak konpartitzeak,  
konpartitzen ari direnen artean  
zubi bat eraiki egiten du,  
konpartitzen ez dena  
hobeto ulertzeko eta  
ezberdintasunarekiko beldurra gutxiagotzeko  
oinarri izan daitekeen zubia.**

**Audre Lorde, *La hermana, la extranjera***

Elkarbizitzarako hezkuntza, honek garrantzia handia baitu hezkuntza-komunitatekide guztien ongizatean, baita ikasleen garapen pertsonal zein sozialean eta haien errendimendu akademikoan ere, helburu bihurtu da.

Beharrezkoa da Elkarbizitza Plana izatea ikastetxe guztietan eta Eskola Kontseiluaren zeregina izatea "*Elkarbizitza-, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna- eta gatazken ebazpen baketsuaren aldeko neurriak eta ekimenak proposatzea*".

Euskal Hezkuntza-Sistemak elkarbizitzarako eta hiritartasun demokratikorako, aktiborako zein erresponsablerako hezkuntza sustatzen du. Hezkuntza hau justizia, tolerantzia, errespetua, solidaritatea... bezalako balioetan oinarrituta dago. Ikasleengan gatazkak eta arazoak ebazteko konpetentziak garatzen duen hezkuntza da. Hezkuntza honek garatuko ditu ikasleengan erantzukizunez beraien bizitzaren kudeaketa onartu, norberarekin zein besteekin harreman positiboak eratu, erabakiak hartu, zentzu kritikoarekin jokatu eta ingurua sormenez transformatzeko ekintzak hasteko behar dituzten konpetentziak.

2000 urtean jada Elkarbizitzarako lehenengo programa martxan jarri zen. Gaur arte hedatu eta sakonduz joan da.

2007-2010 eperako lan-proposamenena "**Elkarbizitzarako, Bakerako eta Giza-eskubideetarako Hezkuntza**" Programak xede bat du: "*Ikastetxeetan eskubide eta betebeharretan, pertsona guztien duintasunarekiko errespetuan oinarritutako harremanak*".

*eraikitzea eta jokaera prosozialak sustatzen dituzten hezkuntza-irizpide inklusiboetan zein gatazken transformazio etikoan oinarriturikoak.” eta lehen helburu bezala hauxe: "Ikastetxean Elkarbizitza Behatokia sortzea eta Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) egitea bultzatzea”.*

Hau aurrera eramateko asmoz, bestelako proposamenen artean, material hau aurkeztu egiten du, premisa hauek dituelarik abiapuntu:

- ✓ Elkarbizitzaren hobekuntzarako hezkuntza-komunitate osoaren partaidetzaren beharra.
- ✓ Elkarbizitzaren hobekuntza helburu hezitzaile izatearen garrantziaz jabetu.
- ✓ Geure sinesmenei buruz eta elkarren artean interakzioak eratzeko moduari buruz hausnarketa egitearen beharra... baita erreferentzia bateraturiko marko kontzeptualak eraikitzearen beharrari buruz ere.
- ✓ Elkarbizitzaren hobekuntzan hezkuntza-komunitatekide bakoitzak bere protagonismoa eta erantzukizunaren bereganatzea.

Une egokia da partaidetza sustatzeko, ikasleena eta familia batez ere. Horretarako ezinbestekoa da dinamizazio egokia sustatzea, alde batetik, beldurrak eta erresistentziak gaindituz, bestaldetik, egiazko partaidetza, partaidetza efikaza eta efizienterako aurrerapausoak estrategia eta erreminta baliagarriak eskainiz. Oinarrizko Hezkuntzarako Euskal Curriculum berriak adierazten duenez, *"ikasleen eskolaldia arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da hezkuntza-komunitateko sektore guztiek, eta, batik bat, familiak ikasleen hezkuntza-bidean parte har dezaten.*

Kontzientzia hartzeaz gain, aurreikusteko moduko gatazka-egoerei aurre hartzeko mota orotako baliabideak hezkuntza-komunitateari sustatzea dagokio. Horrela, zentroko giro ona ahalbidetu eta eskola-bizitza era ordenatu eta atseginez jardutea lagunduko du eta, ondorioz, ikaste-irakaste prozesuari eskainitako denbora gehitzea ere bai, honek ikasleen arrakasta pertsonala eta akademikoaren onerako izango delarik.

Soilik hezkuntza-komunitateko estamentu guztien partaidetza eta inplikazioarekin eman daitezke elkarbizitza positibo eta atsegina eraikitzeko urrats sendoak; hauxe da partaidetzako demokrazia, eta, honekin batera, hiritartasunerako hezkuntza ahalbidetuko duen sare soziala eraikitzeko ezinbesteko oinarri.

Bidean hezkuntza-komunitatekideengan konpartituriko hausnarketa, partaidetza aktiboa eta pertenezkoa-sentimenduak sustatuz gero, prozesuaren arrakastaren garantia ere izango dugu. Harreman-kultura eta lan-kultura transformatzeko arituko gara, halaxe elkarbizitzarako hezkuntza eta zentroko eguneroko zereginetan pertsona guztien ongizatea integratuko ditugularik.

Gida hau Elkarbizitzarako eta Bakerako Hezkuntza Programak proposatu du, EAEko hamahiru ikastetxetan esperimentatu eta haien zein laguntzaile izan dituzten bederatzi

berritzeguneko aholkularien kolaborazio eta ekarpenei esker osatu. Hauxe da orain aurkezten ari garen azken dokumentua.

Espero dugu material hau Elkarbizitza Behatokia eta Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko prozesuan lagungarri eta aberasgarri izatea, baita hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztien arteko harremanak hobetzeko eta egunez eguneko jardutean pertsona bakoitzaren protagonismoa indartzeko ere baliagarri izatea.

## 1.2. MARKO LEGALA

↪ 1993ko Otsailaren 19ko **EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAK**, bere xedeen artean ondoko hauek zehazten ditu: *"Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten balioetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzia askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere"<sup>1</sup>, "bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzeta eta elkartasun-ideiak sustatzeko heziketa"<sup>2</sup> eta "ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea"<sup>3</sup>.*

↪ **EAEko DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN CURRÍCULUM berriak** bere izaera konpetentziala azpimarratzen du eta "Hezkuntzaren lau oinarri nagusiak " bildu, hauetariko bi "**Elkarrekin bizitzen ikastea**" eta "**Pertsona gisa garatzen ikastea**" direlarik.

- Horrela, bere **XEDAPEN OROKORRETAN** (1. kap, 3. art, 6) definitzen du: *"Ikastetxeetako elkarbizitza egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiborako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezzen, horien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat hartzen badituzte errespetuan, elkarrizketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dute gatazken trataera etikoa eta hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak".*
- Bere OINARRIZKO HEZKUNTZAREN XEDEen artean (1. kap, 5. art, a) adierazten du: *"Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; bizitza oso bat izateko,*

---

<sup>1</sup> I. Idazpurua. Euskal Estola Publikoaren Hastapen Orokorrak eta Helburuak. 3. atala 2.- b)

<sup>2</sup> I. Idazpurua. Euskal Estola Publikoaren Hastapen Orokorrak eta Helburuak. 3. atala 2.- j)

<sup>3</sup> I. Idazpurua. Euskal Estola Publikoaren Hastapen Orokorrak eta Helburuak. 3. atala 2.- k)

*gizabanako diren aldetik; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko”.*

- Hezkuntza-kompetentzia orokorren barnean (1. kap, 6. art, d), e) eta f), beste batzuen artean, definitzen ditu:

✓ *Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, **hartu-eman positiboak izaten** eta, gatazka-egoeretan, **elkarrizketara** eta **negoziaziora** jotzen ikastea. Halaber, **gogoz eta demokratikoki parte hartzen** ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta **aniztasuna errespetatzea**, elkartasun-jarrerak erakutsiz.*

✓ ***Pertsona gisa garatzen** ikastea, norbera izanda, eta **emozio negatiboak kontrolatzea** eta **nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea**. Pertsona autonomoa izatea, norberak **hartutako erabakien ardura** hartzea, eta **printzipio etikoei jarraitzea**.*

✓ ***Egiten eta ekiten** ikastea, **erabakiak eta ardurak hartzeko** ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak **gainditzeko ahalegina balioestea**, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.*

- Amaitzeko, OINARRIZKO KOMPETENTZIEI DAGOKIONEZ<sup>4</sup> (1. kap, 7. art, 2) azpimarratu nahi ditugu: "f) **Gizarte- eta hiritar-kompetentzia**" eta "h) **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia**" III eranskinean garatzen direlarik (6 eta 7 puntuak).

✓ **Gizarte- eta hiritar-kompetentzia.**

*...kompetentzia honek barne hartzen ditu zenbait gizarte-trebetasun, aukera ematen dutenak balioen eta **interesen gatazkak elkarbizitzaren parte direla** jakiteko, gatazka horiek jarrera eraikitzailez konpontzeko eta erabakiak autonomiaz hartzeko. Azken erabaki horiek hartzeko, gizarteari buruzko jakintza erabili eta balio-eskala bat baliatu behar da. Balio-eskala horrek hausnarketa kritikoaren eta elkarrizketaren bidez egina izan behar du, lurralde, herrialde edo komunitate bakoitzeko oinarrizko kultura-ereduak aintzat hartuta.*

---

<sup>4</sup> Testuinguru edo egoera anitzek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza oinarrizko kompetentzien funtsa, eta kompetentzia horiek eskuratu behar dituzte Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiek, bai pertsona gisa errealizatzeko eta garatzeko, bai herritar aktiboak izateko eta gizarteratzeko.

Alderdi etikoa eskuratzeko... ikasleak ulertu behar du jarrera pertsonal guztiak ez direla etikoak, baldin eta jarrera horiek ez badituzte **printzipio eta balio unibertsalak** (esaterako, **Giza Eskubideen Deklarazioan jasotakoak**) barne hartzen.

*Horrenbestez, hauek dira konpetentzia honek barne hartzen dituen trebetasunetako batzuk: nork bere burua ezagutzea eta balioestea; gauzak testuinguru anitzetan komunikatzen jakitea; norberaren ideiak adieraztea eta gainerako pertsonenak entzutea; gainerako pertsonen lekuan jartzeko gai izatea eta solaskidearen ikuspuntua ulertzea, norberarenarekin bat ez etorri arren; eta **erabakiak hartzea** komunitate-bizitzako esparru guztietan, **norberaren interesak eta taldearenak batera baloratu**. Horrekin batera, ikasleek pertsonen arteko diferentziak balioetsi eta **kolektibo guztiek eskubide berdinak** dituztela **aintzatetsi** behar dute, eta bereziki **onartu emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna**. Ikasleek elkarrizketara eta negoziatziora jo behar dute, **adostasunetara iritsi eta gatazkak konpontzeko, bai esparru pertsonalean, bai sozialean...***

*Laburbilduz, hauek dira gizarte- eta hiritar-konpetentziaren ezaugarri nagusiak: gizarte-errealitatea ulertzea; balio eta jardunbide demokratikoetan oinarritutako irizpide etikoak erabiltzea elkarbizitzari eta gatazkei aurre egiteko; eta herritartasunaren jarduer-esparrua irizpide propioz erabiltzea, bakea eta demokrazia eraikitzen laguntzea, eta herritarren eskubide eta betebeharrak jarrera eraikitzailez, elkartasunez eta arduraz erabiltzea eta betetzea.*

### **✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia.**

*Konpetentzia honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait **balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia** izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nork bere burua ezagutzea eta autoestimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea.*

*Bestalde, norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziak barne hartzen du hautuak irizpide propioei jarraituz egiteko konpetentzia, proiektuak sortzeko konpetentzia, eta **norberak egindako hautuak eta norberaren planak**, proiektu indibidualetan nahiz talde-proiektuetan jasoak, aurrera eramateko ekintzak egiteko konpetentziaa izatea. Hori guztia arduraz egin behar du ikasleak, bai bizitza pertsonalean, sozialean nahiz lan-esparruan...*

Norberaren autonomiak eta ekimenak, sarri, beste pertsona batzuen parte-hartzea eskatzen duenez, **harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako gizarte-trebetasunak** izatea eskatzen du konpetentzia honek; hala nola, gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarrizketatzea eta negoziatzea. Halaber, asertibitatea landu behar du ikasleak, norberak hartutako erabakiak behar bezala jakinarazteko eta lankidetzaren giroan eta malgutasunez lan egiteko.

Konpetentziaren gizarte-alderdi horren baitan, **proiektuen lidergoarekin lotutako zenbait trebetasun eta jarrera** izan behar ditu ikasleak; hala nola, bere buruarengan konfiantza izan, enpatia, hobetzeko grina, elkarrizketatzeko eta lankidetzan aritzeko trebetasuna, denbora eta egitekoak antolatzea, eskubideak baieztatzea eta defendatzeko ahalmena, eta arriskuak hartzea.

Ikasleak **konpetentzia pertsonalak eta gizarte-konpetentziak bereganatuko** baditu, ikasleak bere burua ezagutu behar du eta harreman egokiak ezarri behar ditu bere buruarekin.

⇒ 2005ko Otsailaren 18ko **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAK** curriculumari dagokionez ondoko hau zehazten du: "Hezkuntza Administrazioak oinarritzeko printzipiotzat ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko joerak prebenitzea, eta **eguneroko bizitzari buruzko** eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: **etxearekin, pertsonen zainketaarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzarekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren elkarbizitza-ereduak ikastearekin.**"<sup>5</sup>.

⇒ Apirilaren 19koa, **EUSKAL AUTONOMIA ELKARTEKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREI** dagokion 160/1994 **DEKRETU**tik eskubide hauek azpimarratuko ditugu: "Nortasuna askatasunean garatzea **demokraziako elkarbizitza ahalbidetuko duten balioetan** oinarrituz osabetzeko heziketa ematea ikasleei."<sup>6</sup>, "**afektibotasunaren garapen armonikoa, autonomia pertsonalarena, autoestimarena eta besteekin harremanetan izateko gaitasunarena**"<sup>7</sup> eta "**bere osotasun fisiko, psikiko eta morala eta beren duintasun pertsonala** errespetatuak izateko eskubidea dute ikasle guztiek eta inola ere

<sup>5</sup> III. ATALBURUA HEZKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOA 29. artikulua.-curriculum.2.

<sup>6</sup> II. ATALBURUA IKASLEEN ESKUBIDEAK LEHENENGO SEKZIOA KALITATEZKO Hezkuntza INTEGRALERAKO ESKUBIDEA. 6. atala 2.- c)

<sup>7</sup> Ídem f)

ezingo zaie tratu laidogarri edo degradatzailek eman ez eta tratu txar fisiko eta morala duten zigorrik eman ere.<sup>8</sup>

Ikasleen betebeharren barruan azpimarratu nahi dugu: "Eskola-elkarteko kide guztien **kontzientzi-libertatea** eta ideologi, erligio, moral eta etika mailako uste sendoak **errespetatzea**, halaber **duintasuna, integritatea eta intimitatea** ere<sup>9</sup> eta "**jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijioa edo eritzia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela bide, eskola-elkarteko kiderik ez diskriminatzea**."<sup>10</sup>

⇒ Azkenik, **ARARTEKOAK**<sup>11</sup> 2006ko "Elkarbizitza eta gatazkak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan" informean eginiko **GOMENDIOAK** aipatuko ditugu:

- ✓ **Ikastetxeen parte-hartzea bultzatzea, elkarbizitzaren hobekuntzarako programa eta planetan.** Praktika onak hedatzea eta esku-hartze programak barreiatzea, ebaluatu, eta eraginkorrak direla baieztatu ondoren.
- ✓ **Ikastetxeei babesa ematea baliabideen, aholkularitzaren, irakasleen prestakuntzaren eta elkarbizitza planak martxan jartzen lagun dezaketen material zehatzen bidez.**

Printzipio eta helburu hauek guztiak Urteko Elkarbizitza Plana proposatu eta garatzerakoan informatu egingo digute.

---

<sup>8</sup> II. ATALBURUA IKASLEEN ESKUBIDEAK *LEHENENGO SEKZIOA* KALITATEZKO Hezkuntza INTEGRALERAKO ESKUBIDEA 9. atala– 1.–

<sup>9</sup> III. ATALBURUA IKASLEEN BETEBEHARRAK 20. atala– a)

<sup>10</sup> Ídem b)

<sup>11</sup> [www.ararteko.net/webs/iextras/conflictos-ceneduc2006/conflictos-ceneduc2006E.pdf](http://www.ararteko.net/webs/iextras/conflictos-ceneduc2006/conflictos-ceneduc2006E.pdf)



## 2. ELKARBIZITZA-BEHATOKIA (EB)

### 2.1. ZER DA?

EB ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea, horixe da bere xedea. Azken batean, zer lortu nahi dugu behatoki honen bidez? Komunitateko kide guztiek jakin behar dute baloratu eta entzun egingo ditugula, eta, ikastetxean erabakiak hartzeko orduan, erantzukizuna eta partaidetza izango dutela.

EBk, agian, elkarbizitza-batzordea ekarriko digu gogora; baina EB kontzeptuak beste foro berri bat aldarrikatu nahi du. Egia esanda, elkarbizitza-batzorde horiek, oso asmo ona zekarten, baina, azkenean, eguneroko martxan, diziplina eta zigorra ezartzeko besterik ez ziren erabiltzen. Horrexegatik sortu da EB, jardun demokratikoa sustatuta, dominazio-sumisio eskema guztiak ezabatzeko eta berdinen arteko harremanak sustatzeko. Pertsona guztiek izan behar dute beren erabakiak hartzeko modua, betiere, errespetua, elkarriketa, negoziazioa eta adostasuna oinarri hartuta.

## 2. 2. FUNTZIOAK

- a) Elkarbizitza Plana egin, osatu eta abiarazi nahi dugu, eta, gero, jarraipena eta ebaluazioa egin horretaz.
- b) Estamentu guztien partaidetza aktiboa bermatu nahi dugu, bereziki, ikasleena<sup>12</sup>
- c) Pertenentzia-sentimendua sustatu nahi dugu estamendu guztiengan, batez ere, ikasleengan.<sup>13</sup>
- d) Aukera- eta tratu-berdintasuna zaindu nahi dugu, prozesu- eta harreman-arlo guztietan.
- e) Hezkuntza Komunitate guztiari harreman positiboak sustatzen laguntzeko jarduerak proposatu nahi ditugu: topaketak, jaialdiak, desioak eta sentimenduak adierazteko kartelak, antzerki-taldeak, gorputz-adierazpenerako tailerrak, erlaxazioa, hainbat gairi buruzko eztabaidak, gatazkak konpontzeko gaitasunak eta komunikazio-ahalmenak landu...
- f) Guztion artean elkar zaintzeko kultura garatzen lagundu nahi dugu; norberaren burua eta gainerakoena zaintzeak aberastasun- eta poztasun-iturri izan behar du denontzat.<sup>14</sup>
- g) Ikastetxearen elkarbizitza-arauak aztertu behar dira (agerikoa: AIA... eta ezkutukoa: idatzita ez dagoena); araudiaren diagnostikoa egin eta hobetzeko neurriak ere inplementatu behar dira.
- h) Harremanak hobetzeko bidean, proposamenak, egonezinak eta iradokizunak jaso nahi ditugu estamentu guztiengandik, era horretara, gatazkak konpontzen eta elkarbizitza osasuntsua eratzen ikasteko.
- i) Eguneroko martxan sortzen diren beharrak eta gatazkak kudeatu eta bideratzeko ekintza-protokoloak proposatu nahi ditugu.
- j) Berdinen arteko balizko tratu txarrak edota indarkeriazko kasuak detektatu nahi ditugu (triptikoak dibulgatu, galdeketak, soziogramak, testak...) eta adostutako neurriak lehenbailehen martxan jartzen direla bermatu.
- k) Informazioa jaso nahi dugu, beste arlo batzuetan elkarbizitza nola garatzen den jakiteko, eta gure inguruan diren baliabideak eta ekimenak zein diren ezagutzeko.
- l) Lankidetzaren sustatu nahi dugu inguruko beste erakunde, organizazio eta entitate batzuekin, elkarbizitza positiboa eta kooperazio-kultura sustatzeko.

---

<sup>12</sup> Ikasleek parte hartzea funtsezkoa da eskola-giroan. Hori horrela dela ikus liteke ikerketa askotan. Ikasleen partaidetza zenbat eta txikiagoa, gatazka-maila orduan eta handiagoa izaten da, eta, alderantziz, partaidetza zenbat handiagoa, orduan eta arazo gutxiago. Watkins y Wagner 1991.

<sup>2</sup> Pertenentzia- eta identifikazio-sentimendu hori garatu nahi izanez gero, oso lagungarria izango da ikasleak zentroaren funtzionamendu-dinamikan integratzea, haien iritziak entzutea, erabakiak hartzeko unean haiei galdetzea eta ikasleak kide aktibotzat hartzea. *Luis Barriocanal 2000.*

<sup>3</sup> Horrela, eskola giroa eta ikasleen arrakasta pertsonal nahiz akademikoa hobetuko da eta baita ere irakasle eta familiarena, hau da, Eskola komunitate osoarena.

- m) Behatokiak egin behar duen lana plan batean jaso behar da, eta, ondoren, horren ebaluazioa eta urteko memoria egin behar dira.

### **2.3. KIDEAK**

Ikastetxeak berak erabakiko du behatokia nola osatu, betiere, bere ezaugarriak eta funtzionamendu-modua kontuan hartuta. Nolanahi den ere, bermatu egin behar da hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak ordezkatuta egon daitezen; era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasuna ere zaindu behar da, eta, gutxienez, kolektiboan dagoen emakume eta gizonen arteko proportzioari begiratu behar zaio.

Hau izan liteke behatokia osatzeko modu bat:

- a) Ikasketa-burua edota Zuzendaritza-taldeko kideren bat.
- b) Irakasle bat
- c) Ikasleen ordezkari bi
- d) Garraio, jantoki eta AZPren ordezkari bat
- e) Guraso bat edo arduradun legala
- f) Orientazio-saileko lagun bat, eta, holakorik balego, eskolaz kanpoko jardunetako saileko beste bat.
- g) Inguruko erakunde eta entitateen ordezkari bat.

Sektore bakoitzak ahalegindu behar du bere taldea antolatzen eta taldekideak dinamizatzen, era horretara, kide guztiak partaidetza aktiboa izan dezaten.

### **2. 4. FUNTZIONAMENDUA**

Behatokiak berak zehaztuko du zein izango den funtzionamendua; horretarako, betiere, behatokiaren helburuak, asmoak, zereginak, baliabideak eta partaide-kopurua izan beharko ditu aintzakotzat.

Bere funtzioak era egokian bete ditzan, gutxienez, bost bilera egingo ditu: ikasturtearen hasieran (UEPren eraketa eta difusioa), hiruhileko bakoitzaren amaieran bilera bat (UEPren jarraipena eta ebaluazioa) eta, beste bat, ikasturte amaieran (ebaluazioa eta memoria).

### 3. URTEKO ELKARBIZITZA PLANA (UEP) OSATZEA

#### 3.1. SARRERA

**Urteko Elkarbizitza Plana** osatzeak energiak, baliabideak eta sormena eskatzen ditu, baita entrenamendua eta planifikazioa ere, eguneroko errealitateko hainbat arazori erantzun zehatz eta adostuak emateko.

Hasiera batean denbora asko eman beharko dugu elkarren artean zentroko bizitzarako alde garrantzitsuei buruzko hausnarketa egiteko eta hezkuntza-komunitateko kolektibo bakoitzaren sinesmenak, beharrak eta itzaropenak bateratzeko.

Lehendabiziko urtea pasa ondoren, lehenengo plana ebaluatu eta hurrengorako oinarri izango den txostena eginez gero, nahikoa izango da denbora gutxiago erabilia ere. Dena den, beharrezkoa izango da gero ere, patxadaz eta eten gabe, zentroko elkarbizitzari buruz hausnarketa egiten jarraitzea.

Plan horren eraketari era sistematikoan ekiteko, zenbait fase dituen prozesu batean murgildu behar da. Prozesu hori sakon garatzea ezinbestekoa da emaitza esanguratsu eta egokia lortu nahi bada.

Prozesuan oinarrizko lau fase proposatzen dira:

1.-**Sentsibilizazioa**: elkarbizitza positiboa sustatzeko beharrari buruz. Hizkuntza bateratuaren bilaketa.

2.-**Diagnostikoa**: elkarbizitzarako garrantzizkoak diren eremu guztietako diagnosis. Errealitatea aztertu, ondo dabiltzan alderdiak, zailtasunak eta sakoneko arrazoiak identifikatu.

3.-**Planifikazioa**: Elkarbizitza Planaren planifikazioa. Elkarbizitza positiboaren eraikuntza, gatazken aurreikuspena eta beren tratamendua landuko duen interbentzio programa. Erantzuna lehentasunezko beharrezko eta prestakuntza-plana beharrezkoa denean.

4.-**Jarraipena eta ebaluazioa**. Hobetzeko eta jarraitzeko proposamenak.

## **Fase bakoitzean** aurkituko duzu:

### 1. Gida-dokumentua atal hauekin:

↗ Aurkezpena / Justifikazioa.

↗ Helburuak

↗ Edukiak

↗ Orientazio metodologiko orokorrak

↗ Jarduerak: bakoitza aurrera eramateko orientazioak (gakoak, denboralizazioa, pautak, baliabideak eta erremintak)

- Jarduera bakoitza fasearen gidan zehazturikoaren arabera ebaluatuko da eta dinamizatzailerak saio bakoitzaren akta idatziko du "JARDUERA-AKTA" dokumentuan.

↗ Oinarrizko materialak: fasearen prestakuntzan diharduten dinamizatzailerentzat eta interesaturik daudenentzat.

↗ Sakontzeko materialak.

↗ Web estekak, atariak, multimedia materialak... Gehiago ikasteko.

- Azken hiru atal hauetan dauden materialak eta baliabideak oso baliagarri izan daitezke hezkuntza-komunitatea osatzen duten kolektiboetan jarduera berriak planteatzeko.

### 2. Erremintak eta baliabideak planteaturiko jarduerentzat. Baita "JARDUERA.AKTA" tresna ere.

### 3. "FASEAREN AZKEN EBALUAKETA" tresna.

### 4. Fasearen gidan aipaturiko oinarrizko materialak eta sakontzekoak.

Gidan proposatzen diren jarduerak proposamen hutsak dira eta ikastetxean inplikaturik dauden estamentu guztiei begira eginda daude: ikasleak, irakasleak, familiak eta AZP (baita zentroarekin lankidetzan ari diren bestelako kolektiboentzat ere). Hausnarketa taldeka egin eta gero, egindakoa bateratzeko, egokia iruditzen zaigu guztientzako guneak sortzea.

Material anitzak dira, kolektibo bakoitzaren beharrei erantzuna eman nahi dietenak. EAEko 13 ikastetxetan esperimentatu dira eta haien ekarpenekin hobetu.

Proposatzen diren erremintak lasai eta sakon pentsatzeko bideak baino ez dira; eta pentsatzeko lan hori taldean eginda, lortuko dugu, aldaketak norberarenak bakarrik izan beharrean, ikastetxean denon artean egindako eta norabide berean zuzendutako ekintzak martxan jartzea, ikastetxeko estamentu guztien parte hartzearekin.

Zentro bakoitza, bere behar, aukera eta aurretik duen hausnarketa-mailaren arabera, erreminta batzuk edo beste batzuk aukera ditzake. Betiere, bere errealitate konkretura egokitzea komeni delarik, itemak kendu edo gehituz..., horrela irakasle, ikasle, familia eta AZPrentzat baliagarri izanik. Erremintak, era independentean aurkezten dira, egokienak aukeratu, eta, behar izanez gero, erraz manipulatzeko.

Emakumezkoen eta ginonezkoen ideiak, hausnarketak, desioak... bereizirik biltzea proposatzen dugu, diferentziak eta bat-etortzeak ikusarazteko eta dena kontzienteki jasotzeko. Horrek informazio esanguratsua eman ahal digu, errealitatetik gertuago planifikatzeko eta esku hartzeko.

Sektoreka hausnarketa egin ondoren, emaitzak konpartitzeko espazio komunak sortzeko gomendioa egiten dugu.

Geure errealitatean hezkuntzak duen garrantziagatik, hezkuntza hezkidetzailaren<sup>15</sup> erabilera gomendatzen dugu prozesuan zehar emango diren interakzio, material eta dokumentu guztietan.

Ikerketa ugari erakutsi dutenez, hezkuntzak ezinbesteko garrantzia du gizakien garapenean, oso lotuta dagoelako pentsaerarekin, eta errealitatea, izendatu bai, baina interpretatu eta sinbolikoki sortu ere egiten duelako.

Gure gizartean aurrera egin dugula nabarmen; hala ere, oraindik ere gizon eta emakumezkoen gizarteak modu batera edo bestera baloratzen dituen balio-sistema, portaera-eredu eta eginkizun ezberdinak aitortzen zaizkie, emakume eta gizonen<sup>16</sup>

---

<sup>15</sup> Pertsona guztiak aipatzen ditu (emakumeak eta gizonak), talde guztiak integratzen ditu (etnia, kultura, sinesmenak, aukera sexualak, ezaugarri fisiko edo psikiko ezberdinak...), pertsona guztiak baloratzen ditu, aniztasuna aberastasun-iturri modura hartuta, konparazioak eta hierarkizazioak gainditzen ditu, (pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina da), bizimodu ezberdinak biltzen ditu, esaldi positiboak erabiliz adierazten du (nahi dena; ez, desiratzen ez dena) eta, hori guztia, espresio ikonografikoan ere bai.

<sup>16</sup> "HIZKUNTZA, HITZAK BAINO ZEOZER GEHIAGO: HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTARAKO PROPOSAMENAK" EMAKUNDE. 1988. Ikus EB GIDAn oinarritzko materiala.

errekonozimendu sozial ezberdina emanez. Horrela, elkarbizitza positiboaren eraikuntza oztopatu egiten da, emakume zein gizonak beren konpetentzia guztiak garatu eta esparru pribatu zein publikoko giza-jardueretan korrespontsableak izatea hain zuzen ere.

Horregatik, hizkuntzaren normalizazioan oraindik ere eman beharreko pausoak geratzen zaizkigunez, bereziki gomendatu egiten dugu sortzen diren dokumentuen errebisioa egitea, ziur egoteko era positiboz idatzita daudela (nahi dugunaz hitz egiten dutela), emakumeak zein gizonak aipatzen dituela, pertsona eta kolektibo ororekiko errespetua dutela... Argi dugu hori lortzeko moduan gaudela eta sotila den zerbait badirudi ere, elkarbizitzaren hobekuntzarako oso lagungarri izango dela.

## 3.2.

### **GIDOIA**

*"Bizitzen jakitea ez da gertatzen zaiguna kontrolatzea,  
gertatzen zaigun hori ondo gureganatzea baizik."*

Gloria Steinem, *Revolución desde dentro*

*Elkarrekin bizitzen ikastea*, horixe da gaur egun hezkuntzak duen ikasketarik garrantzitsuena, eta, horrenbestez, dagoeneko hezkuntza-sistemaren ezinbesteko premia da Urteko Elkarbizitza Plana eratzea.

Gizartea aldatu egin da, eta horrek aldaketak ekarri ditu eskoletako xede eta helburuetara ere. Bizitzeko behar diren oinarriko konpetentziak eta gaitasunak garatzea izango da orain helburu nagusia. Euskal curriculum berriak gaitasun horiek hartzen ditu oinarri modura, eta, horren arabera, "hezkuntzak lau zutabe nagusi ditu"; horietariko bat, "Elkarrekin bizitzen ikastea". Ikasleak bizitzan izango dituen egoeretan modu egokian erantzuteko gai izan behar du, eta, beraz, horretarako hezkuntza sustatu behar da; bizitza,

---

azken batean, elkarbizitza baita, harremanetan oinarritua. Hori dela eta, funtsezko aurrerapausoa izango da elkarbizitza-plan propioa eratzea eta martxan jartzea, era horretara, ikasleek beharrezko diren trebetasun guztiak modu sistematikoan garatu ditzaten, bizitza eta elkarbizitza positibo hori eraikitzeko orduan (bakoitza bere buruarekin, gainerakoekin eta inguruarekin).

UEPren eratzea eta hori IUPen sartzea, azkenean, ia konturatu gabe egin behar da, ohitura modura, eguneroko martxan. Horretarako, garrantzitsua da aurreko pauso guztiak zehatzak eta zorrotzak izatea. Hasiera batean, bada, beharrezkoa da hausnarketa-prozesu sakona egitea, etorkizunean eredu izan dadin. Presak eta azaleko analisiak alde batera utzi behar dira, beraz. Hasierako ikasturteetan horrela jardunez gero, gure jokabidea finkatzen joango gara eta, azkenean, ohitura ona eta lagungarria izango da guztiontzat.

Gidoi hau proposamen hutsa da; ikastetxe bakoitza bere beharrei eta posibilitateei egokitu behar zaie. Badakigu ikastetxe guztien baldintzak, garaiak eta ezaugarriak ez direla denak berdinak. Hori dena aintzat hartuta, prozesuak errealitatetik gertu-gertu egon behar du, ahalik eta hurbilen, horrela lortuko dugu-eta eraginkorrak izatea eta egindako lanaz gustura geratzea.

## **URTEKO ELKARBIZITZA PLANAREN GIDOIA:**

### **1. fasea - SENTSIBILIZAZIOA**

- ✓ 1. FASEAREN Gida

**1 JARDUERA:** MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN

**2 JARDUERA:** ELKARBIZITZA IKASTETXEAN: GIZA ESKUBIDEEI BEGIRA

**3 JARDUERA:** GEURE ELKARBIZITZA DEFINIZIOA ERAIKITZEN

- ✓ 1. FASEAREN ebaluazioa

### **2. fasea - DIAGNÓSTIKOA**

- ✓ 2. FASEAREN Gida



**4 JARDUERA:** DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIORA: non gaude (eremuak: hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazken transformazioa eta etika) GATAZKEN ETA EGONEZINEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA.

**5 JARDUERA:** DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIORA: non gaude (eremuak: partaidetza, emozioak, sentimenduak eta identitatea, ikaste-irakaste prozesuak, irakaslearen lan-estiloa) GATAZKEN ETA EGONEZINEN KATEGORIZAZIOA ETA KAUSEN IDENTIFIKAZIOA

- ✓ 2. FASEAREN ebaluazioa

### 3. fasea -PLANIFIKAZIOA

- ✓ 3. FASEAREN Gida

**6 JARDUERA:** KAUSAK HELBURU BILAKATZEN

**7 JARDUERA:** UEP HELBURUETAN LEHENTASUNAK FINKATZEN ETA AUKERA EGITEN.

**8 JARDUERA:** URTEKO HELBURUAK PLANIFIKATZEN

**9 JARDUERA:** BEHARRAK DETEKTATZEN/PRESTAKUNTZA-EKINTZA PLANA

- ✓ 3. FASEAREN ebaluazioa

### Fase 4-JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- ✓ 4. FASEAREN Gida

**10 JARDUERA:** PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- ✓ 4. FASEAREN ebaluazioa

### 3.3. UEP DIFUSIOA.

Urteko Elkarbizitza Plana erreferentzia garrantzitsua da hezkuntza-komunitate osorako. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kideak era askotakoak izanda, plana modu egokian zabaltzeko, beharrezkoa izango da bakoitzaren erritmoa, inplikazio-maila, jardun-denbora eta abarrak aintzat hartzea; horrela, gainera, komunitatearekiko pertenezia-sentimenduari ere eutsiko diogu.

Planaren zabalkundea egokia izateko:

- Informazio argia, eguneratua, egokitua eta erreala eman behar da: zer ari dira egiten ikastetxean?, nortzuk daude inplikaturak?, ze erabaki hartu dira arlo horretan? Oso-osoa kontuan hartu behar da hartzailea; alegia, informazioa nori eman behar zaion. Horretan oinarrituta, ondo egokitu behar dira hizkuntza, formatuak, momentuak, guneak, denbora...
- Komunikazio-bideak zabalik izan behar dira beti, eta, era berean, bakoitzak nahi duenean prozesuan sartzeko eta parte hartzeko aukera ere beti zabalik izan behar da (familiak, AZP, inguruko agenteak...). Gainera, arrazoia edozein izanik ere, proiektuan duten inplikazio-maila gutxiagotu nahi duten kideek planarekin harremanetan jarraitzeko aukera izango dute<sup>17</sup>.
- Heziketa-jokabideak eta jarraibideak finkatzeko proposamenak, ahal dela behintzat, familia barruko heziketan eta inguruko beste heziketa-arlo batzuetan ere erabiltzeko modukoak izan behar dira, era horretara, denok jokatu dugulako norabide berean.

UEP behar bezala zebaltzeko eta horren berri emateko, ikastetxeetako bakoitzean komunikaziorako estrategia egoki eta berritzaileak sortu, diseinatu eta abiarazi behar dira, betiere, ikastetxearen eta bertako kideen ezaugarriak eta errealitateak aintzakotzat hartuta.

---

<sup>17</sup> Gloria Steinem-ek dioen bezala (Revolución desde dentro. Un libro sobre la autoestima, Ed. Anagrama, Barcelona, 1995. 236 orrialdean), konfiantzako talde batean honako faktore hauek egon behar dute:

- kide guztiek izan behar dute behar beste hitz egiteko aukera, eta kide horiei behar beste entzun behar zaie, beren burua talde barruan sentitzeko moduan.

- taldea ez da obligatuz hartu behar. Norberaren bizitzaren osagai modura ikusi behar da taldea. Apustu berriei aurre egiteko gogoz eta kemenez sentitzeko lagungarri izan behar du taldeak.

- taldeak bidea ematen du kide bakoitzak argi eta garbi hitz egin dezan. Kide bakoitzak ikusi behar du, den modukoa izanda, onartu egiten dutela taldean. Norberaren nortasunetik abiatuta, beste inor gutxietsi gabe, geure buruarekin pozik eta gustura egoten laguntzen digu taldeak.

- taldea akuilua da gero geure kabuz has gaitetzen, bai ekintza positibo eta autonomo horiek taldetik kanpo burutzen, bai geure gaitasunak eta ezaugarriak garatzen.

- oreka egon behar da denbora barrena, taldeari zenbat ematen diogun eta taldetik zenbat jasotzen dugun.

Hona hemen zenbait ideia eta iradokizun, komunitateko estamentu guztiei zuzenduta:

- ✓ Foiletoak
- ✓ Triptikoak
- ✓ Panel informatiboak
- ✓ Kartelak
- ✓ Blogak
- ✓ Web guneak
- ✓ Foroak
- ✓ Kanpainak
- ✓ Zentroko aldizkaria
- ✓ Elkarrizketak
- ✓ Udal-foroak, erakundeak, elkarteak eta entitateak
- ✓ Herriko hedabideak eta prentsa
- ✓ ...

Uneak:

- ✓ Ikasturtearen hasieran, planaren berri eman: abiapuntua, helburuak, plangintza.
- ✓ Ikasturtean zehar informazio berria, akordio berriak sortzen direnean ...
- ✓ Ikasturte bukaeran. Egindakoaren laburpena, inplikazioak, konpromisoak eta hurrengo ikasturterako plana.
- ✓ Erabakiak hartzeko, ekintzak proposatzeko eta abarrerako, unean-unean ikastetxean egiten ari den lana ezagutzea garrantzitsua bada, horren berri jakinarazi behar da, une formaletan nahiz informaletan.
- ✓ Prozesuan diharduten kideen inplikazioa indartzeko bada, edo kide berriak ekartzeko bada, une egoki guztiak aprobetxatu behar dira (tutoretzak, talde-asanbladak, mailakoak, estamentuekin egindako bilerak...).
- ✓ Zentroko estamentuek horretarako une egokia dela uste dutenean.

2006-2007 ikasturtean gidaren pilotajearen difusiorako sorturiko materialen zenbait adibide<sup>18</sup>:

- ★ *Bizikidetza Plana*. GAINZURI LHI. Liburuxka elebiduna.
- ★ *UEP familientzako txostena* HIRUKIDE-JESUITINAK. Liburuxka hirueleduna.
- ★ *UEP irakasleentzako txostena* HIRUKIDE-JESUITINAK. Liburuxka elebiduna.
- ★ UEPren difusioa- *web KOLDO MITXELENA BHI*.  
<http://www.koldomitxelena.net/LOTURAK/bizikidetza.htm>
- ★ UEP eta EBren difusioa- HIRUKIDE- *berritzeguneko webaren bitartez*.  
<http://www.oriapat.org/UBP-Hirukide/>

---

<sup>18</sup> Adibide hauek ikusteko joan EJENPLIFIKAZIOA atalera eta 4.3aren barnean “bestelako materialak” karpeta sakatu.

### **3.4. IDAZTEKO JARRAIBIDEAK ETA ORIENTAZIOAK.**

#### AZKEN IDAZKETA

Idazkera garbi bat, Hezkuntza Komunitateko estamentu guztientzat ulerterraza. Labur eta zehatza, Ikastetxearen Urteko Planari erantsiko zaiona. Helburuak, ekintzak, arduradunak, ekintzen denboralizazioa eta ebaluazioa erraztuko duten lorpen adierazleak, baita prestakuntza plana ere, plazaratuko diren eta ikastetxeko zenbait lekutan agerian jarriko diren oinarritzko zatiak dira.

Laburra izan beharko litzateke, baina oinarritzko aspektuak bildu behar ditu eta bere argitasunagatik, zehaztapenagatik eta ebaluatze errazagatik irakasleria, ikasleria, familiak eta AZParentzat erreferentzia gisa balio behar du.

Norbera bere burua ikastetxeko partaide eta eguneroko bizitzan protagonista sentitzeko Hizkuntza hezkidetzaileria<sup>19</sup> erabiltzea garrantzitsua izango da.

---

<sup>19</sup> Informazio gehiago izateko ikus CD-an, 4.2. atalean “Hizkuntza Hezkidetzaileria” artxiboa.